

## COVID-19AREN PANDEMIAK ERAGINDAKO ABOKATUTZARAKO BALIABIDE DIGITALEN PLAN BEREZIRAKO OINARRIAK

### DIRUZKOAK EZ DIREN LAGUNTZAK

#### LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da, alde batetik, baliabide digitalak eta *hardware* eta *software* erosteko laguntzak ematea COVID-19aren pandemiak eta Gobernuak 2020ko martxoaren 14an ezarritako alarma-egoerak kaltetu dituen abokatuei, eta bestetik, diru-sarrerak txikiagotzeagatiko arautegia garatzea.

Deialdi honen bidez, ahalik eta toki gehienetan eman nahi dira baliabideak.

#### BIGARRENA. BALIABIDEEN XEDEA

**Baliabideen xedea** abokatuentzako jarduera ez-juridikoaren **bi arlotan** egituratzen da, eta horrez gain, besteak beste alderdi hauetan hobetzeko oinarritzotzat jotzen diren baliabideen bost lerroetan banatzen da: **denboraren kudeaketa eta bulegoetako baliabideak; zerbitzuen hedapena eta bezeroak erakartzea**. Arlo bakoitzeko adituek baliabideak nola erabiltzen diren erakutsiko dute, saio espezializatuen bidez, talde murriztuetan. Nahitaez bertaratu beharko da.

Hauek dira deialdi honetan baliabideen lerroak:

##### **a. Baliabide digitalak:**

1.- **Bulegoen digitalizazioa:** adjudikaziodunek produktu ofimatikon pakete bat eskuratuko dute, arlo lokalean zein hodeian lana errazteko, sinkronizatuta dauden gailu anitzetan lan egiteko eta bulegoan elkarlanean lan egiteko tresna gisa balio izateko. Aplikazio digital hauekin guztiekin batera zibersegurtasuneko programa bat ere erantsiko da.

2.- **Profesionalaren presentzia digitala:** baliabide hau jasotzen dutenek zerbitzu juridikoak eskaintzeko bereziki diseinatutako web bat garatuko dute. Horrez gain, aplikazio bat ere prestatuko dute, gizarte sareak elkarrekin eta koordinatuta erabiltzeko. Web-posizionamendurako eta nortasun digitalerako egokiak diren ezagutzak ere eskuratuko dira.

3.- **Marketin digitala bezeroak erakartzeko:** Lerro honi etekina ateratzen dioten profesionali kode bat emango zaie bezeroak lortzeko, Google bilatzailearen “pay per click” modalitatean, iragarki-zerbitzuaren bidez. Adituek iragarkiak txertatzen eta kanpainen lehen fasean lagunduko diete abokatuei. Iragarkiek zein kanpainak abokatutzaren printzipio deontologikoak errespetatu beharko dituzte publizitatearen arloan.

4.- **Kudeaketa ekonomikoa:** Abokatutzaren profesionalak beren bulegoko eta jarduera profesionalak eragindako prozesuen barne kostuak kalkulatzeko tresna bat ere izango dute. Adituek lerro horri lotzen diotenei beren emaitzen eta beharren kontrol zorrotza izaten lagunduko die, arlo ekonomikoari dagokionez.

5.- **Bulegoen kudeaketa:** abokatuek espedienteak kudeatzeko eta izapidetzeko prozesuak hobetu ahalko dituzte bere postarekin, eta komunikazio-plataformak, beste justizia-administrazioekin, lerro honen bidez, ahal denean. Onuradunari, jarduera profesionala osorik kudeatzearekin lotutako guztia hobeto identifikatzen ere lagunduko dio aditu batek.

### ***b. Hardware eta softwarerako baliabide ekonomikoak***

**Baliabide digitalen** osagarri gisa, **Kontseiluak** ordenagailu eramangarriak, tabletak edo eskanerrak erosteko baliabide ekonomikoak ere izango ditu. Kontseiluak aukeratuko ditu gailuak, hornitzaile baten edo batzuen artean, eta horiek deskontu-kode bat emango diete hautatzen dituzten pertsoneri. Hautatutako pertsonak hornitzaileari zuzenean kontratatuko diote produktuaren erostea, xede horretarako emandako deskontu-kodea aplikatuz. Horrela, saltzaileak dagokion faktura eta ordainagiria egingo ditu onuradunaren kontura. Laguntzek, gutxienez, planerako aukeratutako hardware produktuen merkatu-balioaren herena barne hartuko dute.

Ordenagailuak erosteko ekarpenak banatzeaz gain, Kontseiluak, software produktu zehatzak erosteko prozesua ere irekiko du. Abokatutzarako baliabideen eskaintzan barne hartzen ez den softwarea erosteko laguntzei lotzea erabakitzen dutenek, horren beharra eta bere jarduera profesionalari zer ekarpen egingo dion justifikatu beharko dute.

Kontseiluak ez du inolako erantzukizunik hartuko produktuan. Horren bidez eskuratutako produktuek ez dute barne hartuko aditu baten laguntza.

### **HIRUGARRENA. ONURADUNAK**

Oro har, baliabide horien onuradun izan daitezke 2019ko ekitaldiko errenta-aitorpenean 45.000 euroko sarrera gordinak gaingitu ez dituzten abokatuek. Halaber, ezinbestekoa izango da ezintasun profesionaleko egoeran ez egotea, eta epidemiaren ondorioz, ahalmen ekonomikoa txikiagotuta izatea.

**Bere kontura** aritzen den abokatuaren ahalmen ekonomikoa txikiagotu dela hartuko da, 2020ko lehen seihileko sarrerak, gutxienez, % 30 murriztu badira 2019ko lehen seihilekoaren sarreraren aldean.

**Besteren kontura edo kolektibo batean** aritzen den elkargokidearen ahalmen ekonomikoa txikiagotu dela hartuko da, 2020ko lehen seihilekoan, sarrerak gutxienez % 30 murriztu badira, 2019ko bigarren seihilekoaren sarreraren aldean, enplegatzaileak COVID-19aren ondorioz, enplegua erregulatzeko neurriak hartu dituelako.

Berariaz, baliabideen onuradunek hauek izan beharko dute:

#### **a) Baliabide digitalak.**

Baliabide horiei etekina atera ahalko diete, alde batetik, beren kontura **banaka** aritzen diren abokatuek, eta bestetik, **besteren kontura edo kolektibo batean** aritzen direnek.

#### **b) Hardware eta softwarea**

Baliabide horiei etekina atera ahalko diete bere kontura aritzen diren edozein abokatuk, eta besteren kontura edo kolektibo batean aritzen direnen kasuan, laguntza bat emango da eskatzaileak lan egiten duen erakundeko edo kolektiboko.

### **LAUGARRENA. LAGUNTZAREN ONURADUNAK IZAN AHAL IZATEKO BALDINTZA OROKORRAK**

Baliabide horien onuradunak izan ahalko dira baldintza hauek betetzen dituzten abokatuek:

a) **Elkargoko kide egitea:** Jardunean dagoen elkargoko kidea izatea, 2020ko martxoaren 14a

baino lehen hasitakoa, bere kontura, besteren kontura edo kolektibo batean, erakunde baten bidez, errentak eratxikitzeke araubidepean, lan egiten duena.

b) **Egoera ekonomikoa:** Bere kontura, besteren kontura edo kolektibo batean, erakunde baten bidez, errentak eratxikitzeke araubidepean, lan egiten duena, unitate profesionaleko kide bakoitzaren diru-sarrerak (zerga araubidearen arabera), 2019ko ekitaldian, 45.000 euro gordin baino handiagoak ez badira. Horrez gain, 2020ko lehen seihileko diru-sarreraren bolumena, gutxienez, 2019ko aldi berean baino % 30 txikiagoa izatea.

c) **Egokigarritasun digitala:** Gaitasun digitalak hobetzeko edo gaitasun digitala gehiago garatzeko interesa izatea, COVID-19 pandemiaren egoerak eta alarma-egoerak ekarritako testuinguru berrian jardunean jarraitzeko.

### **BOSGARRENA. BALIABIDEAK EZ JASOTZEKO ARRAZOIAK, HAIEN IZAERA ETA BALORAZIOA.**

Baztertu egingo dira, eta beraz, ezingo dute laguntzarik jaso, kasu hauetako batean badaude:

a) Deialdi honetan ezarritako edozein baldintza edo betebeharrak ez betetzea, emandako datuak edo informazioa zehatza ez izatea, faltsua izatea edo ez ematea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua arabera.

b) Elkargoko kuoten ordainketan egunean ez egotea, edo ordainketaren bat egin gabe egotea, haien geroratzea eskatu gabe.

c) Laguntza hau emateko bideratutako aurrekontu-saila agortzea. Kasu horretan, eskaeran baloratu eta haztatuko dira, eskatzailearen egoera ekonomiko eta kokapen geografikoaren arabera. Era berean, baldintza berdinetan, CGAEk lehentasuna emango die COVID-19 pandemiaren egoerak ekarritako testuinguru berrian gehien kaltetutako eskualde edo lurraldeetako onuradunei.

### **SEIGARRENA. ESKABIDEAK AURKEZTEA ETA EBAZPENA.**

Laguntza eskatu ahalko da CGAEren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 2021eko martxoaren 12era arte.

Eskabidea, inprimaki edo eredu normalizatuaren bidez egin beharko da. Hori, <https://www.abogacia.es> web-orrian argitaratutako estekan eskura daiteke.

Eskabide horrekin batera, dagokion puntuan aipatutako agiriak ere aurkeztu beharko dira.

Aurkeztutako agiri guztiak konfidentzialak izango dira, eta halakotzat hartuko dira laguntza izapedetzen den bitartean.

Laguntzaren eskabideak aurkezteak, oinarri hauek eta azalduko irizpideak onartzea ekartzen du, eta CGAERI dagokio interpretatzea.

Baliabide horiek, doakoak eta hautazkoak dira, ez dira derrigorrezkoak. Elkartasun funts bat gisa eratzen dira, COVID-19aren pandemiaren egoerak ekarritako behar bereziko egoerari aurre egiteko. Eskabideak irizpide-askatasunarekin baloratu eta haztatuko dira, kasuak kasu inguruabarrei objektibotasunez erreparatuz. Ezin da aurkeztu horiek ez ematearen edo ukatzearen aurkako errekurtsorik.

Eskabidea, egoera egiaztatzen duten agiriak eta gainerako inguruabarrak kontuan hartuz, eskabidea egiten duen pertsona aipatutako esparruan dagoela egiaztatzen bada, laguntza ematea ebatziko da.

Xede horretarako, berariaz, honela gauzatuko da laguntzaren ebazpena:

**Baliabide digitaletarako:** Baliabideen onuradunek izen-ematea abokatutzaren prestakuntza-plataforman izena emateko sarbidea jasoko dute.

**Hardware eta softwarerako,** prestakuntza egiaztatu beharko da, baliabideen plan honekin lotutako prestakuntza-orduak ebaluazio positiboarekin gainditu dituztela egiaztatuz.

Eskatzaileak aipatutako baldintzak ez dituela betetzen hartzen bada, behin betiko ebazpena emango da, izapide gehiagorik egin gabe, laguntza jasotzeko eskubidea ukatuz. Eskieran adierazitako helbide elektronikora bidaliko zaio horren jakinarazpena.

### **ZAZPIGARRENA. ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Eskaera-ereduarekin batera, ahalmen ekonomikoaren txikiagotzea eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa aurkeztu beharko da.

Zehazki, honako hauek aurkeztu ahalko dira:

- 1.- Nortasun Agiri Nazionala (IFZ/AIZ)
- 2.- Erantzukizunpeko adierazpena, sinadura digitalaren bidez, izena emateko inprimakian emandako datu guztiak egiazkoak direla egiaztatzen duena.

### **ZORTZIGARRENA. ONURADUNA IZATEKOTAN, AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.**

1.- 2019ko ekitaldiko errenta-aitorpena, eskaera aurkezten den egunean, 2019ko ekitaldiko errenta-aitorpena aurkeztu bada.

2.- Abokatu gisa alta emanda dagoela eta ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen elkargoko ziurtagiria.

3.- Diru-sarrerak txikiagotu direla egiaztatzen duten agiriak.

a) Bere konturako abokatuak: 2019ko ekitaldiko 2. hiruhilekoaren eta 2020ko ekitaldiko 2. hiruhilekoaren PFEZen ordainketa zatikatua autolikidatzeko 130 erdua.

b) Besteren konturako abokatuak:

- Nominen kopia 2019ko urtarriletik ekainera eta 2020ko urtarriletik ekainera.

- Hala badagokio, langabezia-prestazioa aitortuta izatearen ziurtagiria, kopurua adieraziz.

### **BEDERATZIGARRENA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.**

CGAEk hautatutako onuradunei baliabideak ematearen ondorioz, onuradunek konpromiso hauek bete beharko dituzte CGAErekin sinatuko duten akordioaren baldintzen arabera:

- 1.- Baliabide digitalen onuradun gisa hautatzen direnek banakako akordio bat sinatuko dute

CGAErekin, eta CGAEk berak haien parte-hartzea arautuko du. Onuradunak akordioa sinatutakoan bakarrik hartuko dira onartutzat.

- 2.- Akordioa sinatzen duen pertsona bakarrik izango da baliabide digitalen onuraduna.
- 3.- Zuzendariak xede horretarako ematen dituen arauak eta jarraibideak errespetatzea, eta baliabide digitalak lortzeko antolatzen diren jardueretan parte hartzea.
- 4.- Ardura egokia izatea baliabide digitalak garatzean eta horrek dakarren bideratzean. Parte hartzen ez duten onuradunak laguntzatik kanpo gera daitezke edozein unetan.
- 5.- Emandako baliabideak ezin zaizkie banatu, ez osorik, ez partzialki, laguntzaren onuradunak ez diren hirugarrenei.

### **HAMARGARRENA. ABOKATUTZARAKO BALIABIDEEN PLANEAN PARTE HARTZEAGATIK CGAE-RI AITORTUTA ESKUBIDEAK**

Hautatutako onuradunek parte hartzeak CGAEren aldeko eskubide hauek onartzea ekarriko du, onuradun bakoitzarekin sinatutako akordioaren baldintzetan:

#### *a. Irudi-eskubideak*

- 1.- Baliabide digitalen onuradunek baimena emango diote CGAERI Internet bidez eta komunikabide espezializatuetan edota jeneralistetan parte-hartzaileen irudia argitaratzeko.
- 2.- Onuradunak baimena ematen dio CGAERI, esleitutako baliabide digitalaren izena eta jatorrizko Elkargoaren izena erabiltzeko, denbora mugarik gabe, web-orrian edo lotutako beste edozein ekintza edo ekitalditan aipatzeko, eta CGAEren artxibo historiko eta euskarrietan jasotzeko.

#### *b. Proiektuaren berri emateko eta jarraipena egiteko eskubidea*

Hautatutako onuradunen partaidetza arautzen duen akordioa indarrean dagoen bitartean baliabide digitalei etekinik handiena ateratzeko eta jarraipena egiteko, CGAEk haren bilakaerari buruzko nahikoa informazioa izan beharko du, ekintzetan edo jarraipen-inkestetan parte hartuz.

### **HAMAIKAGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESA.**

Oinarri hauetan aipatzen diren baliabideak kudeatzeko tratatzen diren datu pertsonalak pertsona fisikoen babesari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Arautegiaren arabera tratatuko dira, datu pertsonen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez. Arautegi horren bidez, 95/46/EB Zuzentaraua (datuen babesari buruzko arautegi orokorra) eta datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa indargabetzen dira.

Eskatzaileek uko egiten badiote inprimakian eskatutako informazioa emateari, deialdi honetan ezingo dute parte hartu.

### **HAMABIGARRENA. ERRESERBAK ETA MUGAK.**

Oinarri hauen xedea da COVID-19aren pandemiak eragindako CGAEren Abokatutzarako

Baliabideen Plan Berezian parte hartuko duten onuradunak hautatzeko prozedura eta baldintzak ezartzea. Oinarri hauetan barne hartzen diren baldintzek ez dute inolako loturarik edo kontraturik ekartzen, ez CGAE erakundearentzat, ez eskaerak aurkezten dituzten onuradunentzat, oinarrietan ezarritakoaz harago. Parte hartzeko onuradun gisa hautatzen direnek banakako akordio bat sinatuko dute CGAEekin, eta CGAEek berak haien parte-hartzea arautuko du.

CGAEk deialdi hau eteteko edo bertan behera uzteko, edota edozein dela arrazoa baldintzaren bat aldatzeko eskubidea beretzat gordetzen du. Horrela, onuradunei jakinaraziko die, baina horrek ez du ekarriko laguntza eta prestakuntza-programetan onartzeko eskatu duten onuradunek erreklamatzeko eskubiderik.

CGAEk eskatzaileekin harremanetan jartzeko eskubidea izango du, eskabidean emandako posta elektronikoen bidez, gaitasun digitalak garatzeko etorkizuneko saioei (unibertsalak eta irekian) buruzko informazioa emateko.

#### HAMAHIRUGARRENA. JARDUEREN EGUTEGIA\*.

02/2021	Onartutako eta baztertutako behin-behineko hautaketa.
04/2021	Onuradunen behin betiko hautaketa.
05/2021	Baliabide digitaletarako sarbidea.

*\*Data gutxi gorabeherakoak dira, laguntza honen kudeaketaren arabera izango dira.*

#### HAMALAU GARRENA. ZALANTZAK KONTSULTATZEA ETA EBAZTEA

Baliabide digitaletako plan bereziarekin edo eskabideak aurkeztearekin loturiko zalantzak argitzeko edo kontsultak egiteko, CGAEekin jar zaitezke harremanetan helbide elektronikoen bidez: [planrecursos@abogacia.es](mailto:planrecursos@abogacia.es)

#### HAMABOS GARRENA. OINARRI HAUEK ONARTZEA

Eskabidea aurkezteak oinarri hauek ezagutzea eta onartzea ekartzen du.

Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Orokorrak oinarri hauetan jasotzen den programaren bidez emandako baliabideak onartzeak, onuradunak haren baldintzei jarraitzea eta leialtasun profesional eta fede oneko printzipioen arabera abokatu gisa lan egiteko konpromisoa hartzea ekartzen du. Horrela, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrean eta Kode Deontologikoan jasotzen diren arauak, zein xedapen, kode eta aplikatzeak diren protokoloetan jasotzen direnak zorrozki beteko ditu".

Madrilén, 2021eko otsailaren 8ean